

S E M P E R E N G E R T A T U A

-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-

(lau gertaldikako ikusgarria)

- Jokalariak -

- I GANICH : 50 urthe, idor, eskrupulos moldeak.
2 ANTON : 22 urthe, edozoin.
3 LUICH : 50 urthe, edozoin.
4 ERRETORA : 50 urthe, fermu.
5 POLIZA : 50 urthe, borthitz.
6 JENDARMA CHEFA : 50 urthe, ofizioko itchura.
7 TARTALET : 35 urthe, tohar, bitzi.
8 KATCHIN : 40 urthe, edozoin.
9 JANA MARIE : 50 urthe, zintzo, zaintsu.
10 MARGO : 20 urthe, beldurti.

MINTZATZEN EZ DIRENAK : (ostalertsu - hiru kantari,
Manech berettara-)

“ LEHEN GERTALDIA ”

JOKA-LEKUA : Erretor etheko sala, sar athe bat.

(Oyhala idekitzean, Jaun Erretora, gizon bat, urrikiz hautsia, kofesatzen ari da.. Biak chutitzen dira).

GANICH: Zertako hil dudan Michel, zertako hil-eta, erre dudan lastoz eta petrolez, ez dakit, nihaurrek ez dakit..Aratsean, ardi bat eskas nuen bordan.. Michelen arthaldean zitakela, jo dut haren bordarat.. Michel ez zen han.. Haren arditeian sartu naiz, ardien ikusteko.. Barnean nintzelarik Michel agertu da nunbaitik. Ez zuelabailio ene burua erakuz nezadan, gorde nitzailo... Bainan, ohartu da han bazela norbait eta makhilarekin eman daut burutik behera... Orduan erhotu naiz... Ez nintzan gehiago ene zainen jabe.. Han baitzen aiskorra bat, harekin joka garbitu dut gizona.. Eta, ondotik, ene egitateaz ikharatua, behar nuela gorphutz hura suntsitu bethikotz, su eman diot, lastoz eta petrolez inguraturik.

ERRETORA :Badia nehor familiakorik?

GANICH :Ez.. Nunbaitik jina zen.. Nehork ez dio behin ere eskasirik ezagutu.. Behi bakartasunean bizi izan da artzaingotik.

ERRETORA :Jainkoarekin zorretan izanen zira, ba eta ere haren arimarekin.

GANICH :Kontzientziaz bortchatua niza, jujeri ene krimaren aithortzea?

ERRET. :Gure Jainkoak holakorik ez du galdatzen. Erreparatu ba, behar duzu, Jainkoari eta gizoneri, bainan aithorra, kofesioan dugu bakarrik zor, Jainkoaren ordeinari.

GANICH :Bainan jujek galdatzen badautet ni nizan krimaren egilea, ukhatzen ahal duta? Ez den hori gezurra deitzen?

ERRET. :Ez du Jainkoak galdatzen denon aintzinean zure bekatua aithor dezazun.. Aithor hori, beren ofizioaz, gure ganik athera nahi dutenek, beren lana egiten dute.. Bainan, jujek beren dretchoa balinadute zuri galdeen egiteko - zure dretchoa ere da, zure hobena denon aintzinean ez aithortzeko...

.../...

- GAN - Bainan, ez dea katichiman, egia behar dela bethi erran tribunalean?
- ERET- Lekukoek ba egia zor diote gizonen tribunalari.. Hobendunek aldiz Jainkoaren tribunalari bakarrik.. Hobendunak Jainkoaren tribunaletik entzun sententzia ~~xxx~~ kompli beza, eta ~~xxx~~ kito da Jainkoarekin eta bere kontzientziarekin.
- GAN - Bainan, munduari egin eskandala, ez dea munduaren bichtan erreparatu behar?
- ERET- Egin ditakena da, bainan Jainkoak ez gaitu hortarat bortchatzen.. M Maiz ere, munduari egin eskandala, munduko tribunalek ez dute erreparatzen, bainan saltsatzen eta berduratzen.
- GAN - Dakizun bezala, auzoko Anton preso altxatua dute behendun gisa.. Kontzientziaz, hura zikintzerat eta kondenatzerat uzten ahal duta?
- ERRE- Zure burua garbi-azu, nehor akusatu gabe..Antonek, bere malura, zure gatik badu, ez dezla izan zure ganik..Nahi baduzu Anton salbatu zure hutsa jujeri aithortuz, aizu zira, bainan ez zira hortaraino kontzientziaz bortchatua.
- GAN - (jalitzen bezala da, bainan berritz sartzeko) Ha, eta ene alaba, gure Margo, zer bilhakatuko da?..Dakizun bezala, ~~han~~anak igandean ditudzu.
- ERRE- Ba, hori bera gogoan egona naiz.
- GAN - Ene haurraren malura egiteko dretchoa vaduta, ichilik egonez?
- ERRE- Uste duzia, mintzatuz, zure alaha hobeki zerbitzatuko duzula?
- GAN - Ho kolera... Zertako kolekorra naiz?..Ha, ondorio izigarriak..
- ERRE- kolera, bekatu kapitala, bertze hainitz bekatuen ithurburua.
- GAN - Eta orai, kofesatu-eta, kito niza beraz?
- ERRE- Ba, jada erran dautzut, erreparatu-eta:
- GAN - Uste duzia gero kontzientzia bakean sendituko dutala?
- ERRE- Ez, ez duzu egitate hortaz sekulan kontzientzia bakean sendituko.
- GAN - (asaldatua) Zer nahi duzu erran?..Jainkoak ez dautala barkatuko?..
- ERRE- Ez.. Jainkoak barkatuko dautzi.. Bainan gure egitatek segitzen gaituzte..Zure bekatuaren zauriak bethi min eginen dautzu..Gizonaren kontzientzia da gordetei bat bezala, bere egitateen orhoitzapenez bethea.. Orhoitzapen horiek, on edo gaichto, gordetei hortarik jalitzen dira noizean behinka, gu kontsolatzeko edo minberatzeko..Atzarririk, berdin lotarik, kontzientziaren dauga ilhun zorrotzak, bihotza penatuko eta zilhatuko dautzi..Eta urthe~~k~~ ez dute kontzientziaren dauga hori eztituko, bainan hobeki borthitztuko eta pisutuko.
- GAN- Hau, zorte malurusa...
- ERRE- Ba, presundegi eta amandak zerbait badira, bainan heien gaztigua baino segurago eta latzago duzu, kontzientziaren dauga ezin ichildua.
- GAN- Jauna othoitz egizu enetzat (bihotza joa jalitzen da)
- ERRE- Ba, othoitz egin dezagun elgarrrentzat(bakarrik, gogoetatua, harat eta hunarat dabil... Mahain gaineko gurutzefika tinkatzen du eskuetan..Gero, bizarra egiteko pusken aphaizatzen lotzen da.. Bainan, athea jotzen dute, idekiz) .../...

ERRE-To, gaizoa, hi hintzana, eskoletako adichkide zahara.. Nun habila nemen gaindi.

POLIZA- Bodaletik heldu nuk, chuchen chuchena.. Pentsatzen ahal duk zertako.

ERE- Ez amesten ere.

POL- Ez dakika poliza buru nizela Bordalen?

ERE- To, banakian polizgoan hintzela, bainan ez nun eta zer gradutako. Zer heldu hiz beraz...Krima horrentzat?

POL- Ba, hala beldu nuk..Eskuara zakiatelakotzæ, hemen gaindiko krimen argitzale ni nuk.

~~ERE~~ To, ez duk beharhada sñnhetsiko, bainan egia hauche duk: Eskual-Herrian, ~~POL~~ bertze edozoin eskualdetan bezembat gizon hiltze gertatzen dela.

ERE- Ba zera.

POL- Egia hola duk..Erranen duzue, zuek aphezek: Eskualdun fededun.. Bainan, berdin berdina, erran zuek: Eskualdun herradun.. Odol borthitzekoa duk Eskualduna, kasko gogorra eta thematsua..Eta, herran sartuz geröz, ez die deubru batek hartzen Eskualduna, bainan hiru deubruk.

ERE- To, ez nian holakorik uste.

POL- Eskualdunak, bertute jabe gituk, bainan bertute heien imprentsuak, larri hor hor ditiagu: itzal handiak..Errak, hor badic jendarmek muthil bat arrastatua.Kasik segurtamena badik hori dela gizon hiltzalea..Artzainek baino hobeki nenork ez baitik ezagutzen arthaldea, zer muthil duk to, Anton hori?

ERE- (zintzoká) So egizak, hi.. Nahiago diat hire galdea ichilik utzi.. Ni hemen, denen aita nuk, eta, ez duk g gomeni aita bat ari dadien bere haurren salatuetan.

POL- Egiazko Eskualdun apheza haiz ba hi ere..Prediku lekhitik berdin zer nahi burutik behera erranen diozute zuen arthaldeari, bainan sahetsetik norbait jazar ikusten baduzue arthalde berari, ordu berean mutu bilnakatzen zarete zuen arthaldearen itzalez, eta han zuen gerizan hartzen duzue.

ERE- Ez ahal zauk hori gaizki..Artzainaren eginbidea ahal duk, batetik arthaldea akulatzea, bertzetik haren zaintzea otsotarik.

POL- Zer nuk, ni, otsotzat hartzen?

ERE- Ba, nahi dukan bezala ene errana hartuko duk, bainan hire ofizioko gizonak ez zaizkiat laket, eta nahiago ditiat etchean baino auzoan, eta ~~xxx~~ ahal bada auzo urrun.

POL- (bizi bizia) Ez ahal zauk gaizki gachtaginaren arrapatzea eta punitzea?

ERE- Ba ba.. Bainan eni iduritzen, gachtaginak atzeman estakuruan, aisegi ditutzuela jendeak funditzen, sobera saltsa zikinak muntatzen, batzuetan hobengabeak kondenatzen.

POL- Zer dituk hik ere, erran merran batzu egitzat hartzen?..Pleini hut kazetak badauzkak katichimatzat..Bichtan duk, gure ofizioan ere izan zuzkek, bertzetan bezala, gizon ustelak.. Bichtan duk ere, batzuetan aztaparrak pichka bat pisuegi hedatzen ditiagula gure menerat ~~h~~ bildu ihizieri.. Bainan, asko mandoren hezteko bezala duk, asko jenden hezteko ere.Zaharoaz bakarrik dituzkek bentzun.

.../...

- ERE - Zaharoa gauza itsua duk..Gachtaginen aithorrak ditutzuela hari esker ardiesten, zombaitetan ba. Bainan, berdin hobengabeak zafratzen, eta, beldurtieri hala direnak eta ez direnak aithorrazten.
- POL - Zer nahi duk..Ez dik guriegi behar gure ofizioko. Atrebentzia behar dik izan desmasia pichka bat egiteko, hartarik zerbait on jalitzeko espcrantzan.
- ERE - Zuen ofizioko ez dela guriegi behar, diok eta nik zioiat: Ez eta ere kontzientziez kilikegi..Hik eta nik, katichiman ikasi ginian gachtakeria ez dela aizu, egina bada ere handik zerbait on jaliko delakoan..Itsurat punitzea ez duk aizu, nombrean hobendunak barne izanen direlakoan.Ez ibil gachtigurik, gachtaginak atzeman artio eta hel punitzeko baizik.
- POL - Ez gituk airerat nor-nahi zafraka lotzen..Frogak eskuratu ondoan, aintzinat ukhatzen ari direnak ditiagu hezten..Dena den, ez duka beraz hire iduripenik, nork egin duen hemengo krima hori?
- ERE - Ez den gutienik ere.
- POL - Bon, ago beraz mutu..Atzemanen ditiat mintzatuko direnak.
- ERE - Agian zuzenetik mintzatuko zauzkik.(athea joiten dute) - Aintzina..
- TARTALET-(sartu ordu, ezin athertuzki mintzo) Jaun Erretora, azkenean gertatu da gertatu behar zena..Segur baino segurago naiz, hek, bai hek egina dutela krima hori.
- ERE - (fermuki) Tartalet, othoi zaude ichilik.
- POL - Zer ichilik.. Mintza zaite garbiki Jauna..Zer dakizu?
- TART- (dena sinu, Polizari mintzo) :Ba, Jauna.. Hori buhamen lana da dena, ..Joan den aldian ikusi dut nihaurrek hor buhameak pasatzen.Eta gero, gure auzoan oiloak eskastu ziren..Eta,, bat, oilo koloka... Ba, horiek jaten dituzte oro..Eta, ez dugu gero luma bat ere atzemanen..Gordetzen dituzte-eta lurrean.. Ba, lur-ziloan sartuz... horiek guziak behar liezke kasatu hemendik..kasatu, entzuten duzu.. kasatu.
- POL - Bainan.. Nork hil du gizon hori..
- ERE - Oren baten buruan, orai bezembat jakinen duzu.
- TART- (tira-hala mintzo): Nork daki nundik heldu den arraza hori..Beren asto eta pottokoak nundik biltzen othe dituzte..Eta horiekin kasu eman behar da gero lapinteieri cre..Guri ere ereman dauzkute bi lapin..Arra eta emia..Oraino bat utzi balute..ez...biak erremán dauzkute..Emia utzi balute bederen.. Haren umiak hor izanen ginituen..Joan den aldian egin zituen zazpi...
-(bethi aintzina mintzo dela)
- POL - Zer da?...Teilatutik arras harrotua?
- ERE - Juja suhaurrek.
- ~~TART~~- Horien atso horiek ibiltzen baitira beren zai handiekin, hola bez-titzen dira, gauza ebatsien hobeki gordatzeko.. Nork daki zer ez dituzten gordetzen zai horien azpian..Eta, zorte tzarrak ere botatzen dituzte.. Lanjerosenak dira atso begi gorriak..Asken aldi batez, holako batek gure arthaldeari so-egin-eta, in nomine santian hiru ardi hil zauzkigun..Ba, hiruk ernari ziren..Ez zuten ez tre-fla berogitik jana, erran izan duten bezala..Haren begi kolpe gachtoa zuten ukhana. .../..

ERE - Errazu, Tartalet.

TART- (bethi bereari) Eta, horiek baino gachtagoak, gure artian bizi diren batzu dira.. Horien odol berekoak. Hasteko: ETCHEVERRY eta SALABERRY deitzen diren guziak, horien arrazatik dira... Bahakit nik hori..Eta horiek denek eggar aditzen dute, oilo eta lapinen ebasteko..Eta gero, phartzuekoan jateko.

ERE - Errazu Tartalet.

TART- Bantzut, Jauna.

ERE - Ohartzen naiz zer-nahi berri baliosen jakintsun zarela. ..Othoi, zoazi berehala denen salatzerat jendarma chefari..Zerbitzu gaitza eginen diozu.

TART- Ba, banoha.. Banoha berehala.. Jakinen ditu oro..Eta ez ditut oraino oro aipatuak. (jalitzen da)

POL - Zer euri elementa, to, gizon hori.

ERE - Ba, horrek hire baratzea arrosatuko dauk nahi dukan bezembat, bainan lili guti han pusaraziko.

POL - (iziz) Hobe diat beraz aldaratzea hemendik. Lekuko bat arras idorra, bertzea ezin athertua, biek ere ez dik ene baratzea biziki onduko. Bainan jinen nuk oraino, hi kombertitzerat ez bada, bederen edari on huntarik jastatzerat.

ERE - Hortarik ari bazira, kalte egin duzu er So egizak.. Plazer bat egin behar dauk..Ene etchekeko sar-jalitzeak bethi eta beriziki egun hautan zainduak baitituk inguruko begiez- eta ez batiat nahi krime horren saltsan barne - othoi, hemen, afera hunk dirauno, guti agert-adi.. Han bururatu-eta, orduan ba, nahi dukan bezembat gurutzatuko gaituk.

POL - To, ez hut gehiago ezagutzen ere.. Hi, eskoletan ginelarik hain irriskorra, hain acholarik gabe baihintzen - hor hiz Salomon zaharra bezin zuhur eta zintzo bilhakatua.

ERE - Trufa-adi nitaz, nahi baduk, bainan ez gituk batere biak kasu berean.. Hik ez duk hemen phitz galtzeko, ez baituk hemen phitz beldurik. Nik, jendeen konfientzia eta errespetua bilduak ditiat eta ez ditiat nolanaizka saltzekoak, hanitz lan eta urhatsen ondri-oak baitituk..Hi, zombait egunentzat hiz bakarrik hemen.. Hire ziliportak hirekin joanen dituk..Eniak aldiz enekin geldiluzkek, hemen egoitekoa bainuk.

POL - Bon, bon , ontsa duk..Goazen beraz bakotcha guretik.. Hi ichiletik eta ni burrumbatik.

ERE - Ba, ..ahatik, ikasak, hik, ichiletik maiz lan baliosagoa egiten zela burrumbatik baino.

POL - Ontsa duk, Salomon zaharra hi..Eta bertz'aldi bat artio. Eta, atchik daitak edari hortarik chorta bat, bertz'aldiko ere..Hauta baituk hori.

ERE - Hitz ematen dait, gormant tzarra, hi ere...
-(berechten dira - bakarrik)

.../...

- ERE- Hola hobe duk, erretor.. Ez adila sobera eskuz esku ager munduko buruzagiekin.. Orhoit nola den erran zahar: Jainkoa eta Zesar - biak parrian par- errespeta eta maita elgar - ez elgarri jazar - ez eta're elgarrekin sobera barna sar.. Hola gobernatuz, ba Jainkoaren eta ba Zesar-en alderdia hobeki jaliko baitira munduan. -(berritz ere, bizar egiteari aphaillatzen da..athea jotzen dute) Nor da hor, berritz ere?...Aintzina..
- GAN - Agur Jaun Erretora..
- ERE - Agur, Ganich.
- GAN - Jaun Erretora, hemen naiz berritz ere..Arrazoin zinuen..Kontzientziaren dauga baino gaztigu izigarriagorik ez da. Kofesioan penitentziatzat erran dautazu, lau meza urthean emanazteko hil dutanarentzat, eta gainerat harentzat hiru "agur maria", egun bakoitz egiteko. Bainan kalte ekharri diotet ere ene alabari, hor baitago nigarrez bere ezkontzeko laguna preso altchaturik..kalte ere egin diot diot Antoni, preso baita eta naski zafraka baiterabilkate ene gatik. Horierx egin kaltea nola behar dut erreparatu?
- ERE - Hortarik ari bazira, kalte egin duzu ero bertze asko jenderi: lekukotzat deithuak izanen direneri - phazka eman diozuten mihi gaitoeri - hetaz jorratuak izanen direneri.Eskandala ithurri bat bezala duzu..Ithurria idekiz geroz ez du balio ibiltzea handik jali uraren ondotik.. Penetan ezarri ditutzumentzat egin azu, behin nik eman penitentzia, eta gaincrat, bertze ahal ditutzun guziak..Eta, zaude deskantsuan.
- GAN - (bihotza joa) Horiek guziak, ene faltaz..ene falta handiaz.. Ha, ez naiz sekulan salbatuko. Gisa huntako bizia ez da zakurrentzat ere on. Hola bizitzen baino hobe da bere burua garbitzea ere.
- ERE - Errechago da arbol kolpatua sendatzen baino pikatzea. Bati kolerez bizia pikatu diozula-eta, ez ahal diozu orai, zure buruari, etsimenduz, gauza bera egingo? Jainkoa ona da eta haur prodigoari bethi besoak zabali dauzka. Behozu othoi Jainkoaren oneziari eta ez haren azoteari, eta, othoi orai, zoazi zure lanetarat..Zure gogoa alha dadien ez zu baitan, bainan inguruko alhapidetan.
- GAN - Errechago da erraitea, obratzea baino (jalitzen da)
- ERE - (bakarrik, bizar egiteari berritz ere lotuz) Ha, zombat mota giren mundu huntan. Batzuk zetabe larriegia hartzen, beren kontzientziaren ikertzeko.. Bertzek aldiz, chehegia. Izariko zotabia emaguzu, izarikoa, Jainko maitea..(athea joiten dute..erretora kechu) Aintzina..
- GAN - Berritz ere, ni naiz.
- ERE - Bon..Zer duzu oraino ere..Ez duzia aski argitasun ukhanik?
- GAN - Barkatuko duzu, Jauna, bainan betbetan orhoitu naiz.. Nago kofesio ona egin othe dudan..Urrikia behar da izan Jainkozkoa...Nik aldiz krimaz urriki dut, ez baitezpada Jainkoaren gatik, bainan ekharri dauzkidan ondorio gachtoen gatik.. Beraz, urrikia ez dut Jainkozkoa, bainan enezkoa-eta ene kofesioak ez du deus balio.
- ERE - (bizi bizia) Ba..Zure kofesioa bali da, eta hura berritz eni aipha.. Jainkoaren ordainaren ganat jin zirenaz geroz, hortarik ageri da Jainkoari nahi ziniola barkamendu galdatu.. Kontrizionezko aktan ere hala erran duzu "Ene Jainkoa handizki damu dut zu ofentsaturik?"

.../...

..... Aditzen duzu: "Zu ofentsaturik"..

GAN - Ba, eta urrikia da berritz ez erortzeko chede fermu bat izaitea.. eta nik aipatu dautzut, hura hil-eta, orai ene burua behar dudala garbitu.. Beraz ez nuen chede fermurik berritz ez hasteko, ene burua hiltzea aipatu dudanz geroz.

ERE - Bi dira erraitea eta egitea..Erran ba duzu: Garbituko zinuela zure burua, bainan barne barnetik bertzerik pentsatzen zinen. . Oraino bizi zirenaz geroz..Eta orai, zoazi othoi hemendik eta lot zaite zure egun guzitako laneri.

GAN - Ontsa da, Jauna.. Ontsa da..(jalitzen da)

ERE - Zer deubru ..Ez duta ene kokotsari bizarra kentzeko astirik ere ukhanen, etche huntan.. Pazientzia behar dela bekatorosekin, nahi dut.. Bainan, pazientzia soberakina ez othe da ahulezia. Hasteko, gisa hortako izpirituak, izpiritu eri batzu dira.. Mihikuen da horien sendatzea, aphezen bezembat. (athea jotzen dute.. kechu) He.. Oraino ere.. Bera balimbada, igortzen dut ba airez aire antzarra ferratzerat (idekitzen du eta eztitzen da) Ha, zuek zineztena?.. Agur andereak.. (sartzen dira Jana Mari eta Margo)

BIAK- Agur Jaun Erretora.

ERE - Jar zaizte..Zer zaizte. Denak airean auzoko gertakariekin... Oraintchet, jalia da hemendik zuen Ganich.

JANA MARI - Ba, Jauna, athean gurutzatu gira.. Badakizu, dudarik gabe, hiltzalen itzalean dela.

ERE - Ha ba.. Nor da?..

JANA MARI- Anton, gure suhi behar zen charmant hori.

ERE - Segur zirea?.. Aithortu dia?

JANA MARI - Nor nahi duzu izan dadien? Engoitik libratua behar zuten, ez baliote deus itzalik atzeman.

ERE - Ezkont manak egandean emaitakoak bainintuen, hobeko ditut beraz luzatzea.

JANA MARI - Alabainan..Ez ditutzu luzatu behar, bainan bethikotz urhatu. Hunek eta Ganichek kontra egiten zautaten.. Bainan ez zen eskontza hori ene gostukoa.

ERE - Eta zuk, Margo, ~~xx~~ zer diozu??

MARGO - (ihardetsi gabe, nigarrez lotzen da)

JANA MARI - Ez enia delakotz, Jaun Erretora, bainan ene alaba ez duzu gero edozoinetarik..Gisa hortarat altchatua ere dut..Ez du hunek kurriada faltzorik eta kontzientzia garbi hartuko du hau, hunekin ezkonduko denak..Etchea, etcheko lanak, igandetako athermaldi hori elizarat, horra hunen bizia. Ez dut bertze nehorat alhatzerat utzi. Hortako, ez nuen muthiko hori, bieiki ene gogokoa.. Lachoe-gi baita hori, Jaun erretora..Erretirak hala hola.. Noizean behin-ka igandetako meza ene karrik egiten.. Eta puchka bat, bere molde eta solasetan, larria..Gure hunek, horrekin sofritu behar zuen... Hortako ez nintzan ezkontza horren alde.

.../..

ERRE- Bon, ontsa da, Jana Mari.. Zu mintzô zira, bainan alabri da bere gogoaren agertzea. Adinerat heldua duzu.. Horren barnek berri nahi nuke jakin, bere ganik.

MARGO -(erdi nigarrez) - Ez dakit zer erran.

J.M.- Ba ahal dakit, nik, Jauna, ene alabaren berri. Emazterik etchean ez zutela-eta, aita semek hau ontsasko enganatua zuten, beren etchean sartzeko..Emazte bat, edo hobeki sehi bat botzen baitzuten.. Ikusten duzia gaich haur hau, han bakarrik, bi gizonen zerbitzari.

ERRE- Bon, beraz, manarik ez dut emanen.

J.M./- Alabainan Jauna..Ez ahal zinuke nahi ene alaba krima egile baten emazte bilhaka dadien.

ERRE- So egizu, Jana Mari..Zuk diozu Anton dela kriminela.. Nik, oraino segurik ez dut holako segutamenik..Bertzalde, zure alaba kontseila dezagun, ba zuk eta ba nik.. Bainan berari da deliberamenduen hartzea bere geroari buruz.. Mementokotz, ez daki berak zer egin..Ez dezagun bortcha..Utz diezogun gogoen egiteko ephea..Eta, berak hautatu bezala izan dadiela horren harat-hunata..

J.M.- (pindartua) - Ho, Jaun Erretora, uste nuen, hola altchatuz geroz bere haurra, solas gochoagorik zor zuela ama batek, zure ganik.

ERRE- Ez dautzut errespeturik galdu, bainan erakutsi, norbaiti errespetua erakasten baita hari egia erranez, eta ez solas lausenkarî eta zilinga batzu hari adi-arazik..

J.M.- Ontsa da Jaun Erretora..Ez da zure erakaspena ahantzia izanen.. Zato, Margu. (jalitzen dire, mutu)

ERRE- (kechu, berritz ere bizarrari lotuz) Hambat gachto ez bada kontent.. Emazte hori profeta bat bezala mintzo zautzu..Bere alaba saindua duela..Uli bat ba hobeki..Ez da ontsa alabak sobera lachoegi altchatzea, bainan ez eta ere tienkiegi..Lachoegi utzia harrotzen da eta galtzen..Tienkiegi altchatua berritz, edo egnul bat bilhakatzen - edo azpiz eta gordeka ditu hartzen, ageriki har ez dezazken libertateak..Horren alaba ez dakit, funtsean, bat'ere zer den..Uli bat iduriz..Nun ez den: Kampoz ur geldu , eta, barnez, erakitan ari..
-(athea joiten dute... Izigarri kechu, ahapetik)

Bon..Deubrua sar.. Ha, barka, Jainko maitea..(idekitzen du)
Te... Zu hemen, Luich.

LUICH: (hotzki) Ba, Jaun Erretora, bertze askoren ondotik, ene solasek ere izanen ahal dutela entzule, zure etchean..

ERRE- Zertarat heldugo duzu?

LUICH Ene sema ez omen da bakarrik preso altchatua, bainan hemendik jali-berri den andere horrek dionaz, hura bera omen da gizon hiltzalea.. Zure ahotik hala ikasia omen du.

ERRE- Ez dut nik holakorik aiphatu..Saltsa egileri jazar zaite eta ez eni.

LUICH Agian, Jauna, agian,.. Bainan, denenak entzun behar baitira, jakin-azu, Michel Larralde, gure etchetik afaldu-eta urrundu delarik, ba semea eta ba ni oherat sartu gira..Eta, gure etchetik, nehor ez da goiza artio higitu.. Horra egia..

ERRE- Eta, zertan da Antton?

..../....

- LUICH- Antton, jandarmek berekin hartu eta joan dutela badakit..Zafraka ibili dutela ere, fama jali dute..Aithortu ere duela.Funtsarik deus ez dakit.. Bainan, ni segur naiz, ene borts erhiak esku muthurrean ditudan bezen segur, ene semaak ez duela phits ikus-tekoric krima hortan, phits.
- ERRE- Jakin azu, Luich, zure semeari ene estimua beiratzten diotela. Akusatu dena ez baita baitespada hobendun.. Ondoko egunek eginen ahal dute argi..
- LUICH Ba.. argia...Ez dut, nik ere, bertzerik galdatzen.
- ERRE- Antton ikusiko duzia?
- LUICH Ahal badut ba, eta lehenbailehon.
- ERRE- Errozu Erretora maiz harekin dela gogoz eta harentzat orhoitzean ari dela.
- LUICH Milesker Jaun Erretora..Estimatzen dut zure egitatea..Eta laster izanen ahal dut harekin buruz-buru egiteko padara.
- ERRE- Agian, agian, Luich.
- LUICH Agur, Jaun Erretora.
- ERRE- Ba, agur Luich..(jalitzen da..bakarrik) Ha, zer behar othe daukute jali tribunaleko gizonak?..Mihi gachtoek jada egina dute beren jujamendua..Antton eta Antton daukate hobendun..Ha, mihi saltsa..saltea ikharagarria..(athea jotzen dute..kechu) Heee..Batere ez diot idekitzen..Ez da hau bizi bat: bethi norbeit athean..Aski du joileak bertze tenore batez jitea.
- GANICH (sartuz) Jauna, Sartzeko erran duzia?..Ez dut phitsik entzun.
- ERRE- (idor) Ez..Ez dut sartzeko erran, bainan orai barnean zira.
- GANICH Barkatu Jauna, kofesatu nahi nuke.
- ERRE- Ez..ez zaitut kofesatuko..Errana dautzut zure bekatuak barkhatuak dituzula..Aditzen duzu: asken absoluzioneaz barkatuak..denetaz kito zirela.
- GANICH Beraz ez du balio penitentziarik egin dezadan, denetaz kito naizenaz geroz.
- ERRE- (fite eta samurki) Bekatuak baditu bi ondorio.Samur ezartzen zitu Jainkoarekin, eta zordun..Absoluzioea ikanez geroz, ez zira gehiago samur Jainkoarekin, bainan zordun, ba..Eta zor hori, mundu hontan ez bada bertzean beharko duzu pagatu, zerurat sartzekotz..Orai bazirela zertako behar duzun penitentzia egin?
- GANICH Halere nahi nuke kofesatu..Ene buruaren hiltzea pentsatu dudala ez baitut behin ere kofesatu.
- ERRE- (kechu) Ez, ez eta ez, ez zaitut kofesatuko..Zure izpirituko nahakeriak beregisa utz-atzu eta othoi zoazi etcheke lanetarat..Baitut nik ere ar egin zutaz bertz'alde.
- GANICH Bon, zure gain hartzen ditutzia beraz ene arrangurak?
- ERRE- Ba, ene gain hartzen ditut... Bego denak en e gain..Eta orai, zoazi homendik, eta ez ethor hunarat bederen hamaborts egunez.
--(athea idekitzen dio)
- GANICH Bon, eta ene burua garbitzen badut, hura ere zure gain.
- ERRE- Bai'eta ere..Orduan bat gutiago eta halabiz..(athea hetsi eta) -Atch..Sobrasko erran diot..Barka, Jainko maitea..Zer nahi duzue. Aski delarik aski da..Bethi sainga bera..Eztitasuna behar dela bekatorosekin..ba, ba..Predikatzea da errechenik..Opratzeak emaitzen dauku lan...
-(OYALA)

JOKA LEKUA: Poliza bulego bat.

POLIZA : Bon, behar ditugu beraz mintzarazi... Nor direa denak?

JENDARMA CHEFA : Ba, hiru barnetan ezarriak ditugu, elgarrekin ez diten gurutza.

POL - Ez da dudarik, hiltzalea horietan da.. Han, berritz aipha-azkitzu cheheki heriotzearen chehetasunak.

JENDARMA Hila bakarrik bizi zen... Bere ardi bordan zuen bere biziteia. Aratsarekin, Antonen etxean zen gaztain erre jaten.. Handik erretiratu da ontsa jan eta edan ondoan, hamekak hirian. Goizean, Antonek du atzeman haren gorputza borda aintzinean. Aizkoraz hila zen eta lastoz eta petiolez errea.

POLIZA Zoin tenorez othe?

JENDARMA Gauerdian aldean, ikhertzaleen arabera..Goizeko zazpitan, Anton ethorri da gu abisatzerat. Bordan ez dugu hiltzalearen arrastorik atzeman. Michelen gamberan ez zen deus arroturik. Bere diruak han zituen oso osorik..Ez dute beraz ebasteko hil.. Nehork ez dio etsaiarik ezagutzen. Ez zuen ere emaztekilarik.. Hortako pentsatu dugu kalapita zombaiten ondotik norbaitek, bere errabian , garbitu duela.

POLIZA Ba..Ez ditake bertzerik hor..Eta kalapitak, edariaren ondorioak baitire maizenik, jakin duzia hanitz edan othe zuten afaritan?

JENDARMA Ba..Lau pinta hiruen artean.

POLIZA Eta, Antonek, zer aithortu du orai artio?

JENDARM Dion Michel joan-eta, oherat sartu dela..Goiza artio lo egin duela. Eta goizean, ardi tratu bat elgarrekin bezperan hasia zutelakotz, bordarat joan zaiola..Eta hola duela arrapatu haren gorputza.

POLIZA Ba.. Maiz kriminela krimako tokirat berritz biltzen da.

JENDARMA Krima bezperan eta biharamunean, ez du euririk egin..Gauaz ba aldiz, frango polliki ere..Eta preseski, Antonen etxean atzeman ditugu gapelu, soineko arropa eta botak, arras bustiak eta busti berriak..Erran dauku, zombait egun hartan zokorat aurthikiak zituela puska horick, bainan galtzen hegaletan eta botetan baziren belhar pherde eta iratze luma batzu, fresko freskoak.. Beraz, puska hek, soinetik kendu berriak zituen.. Hortarik jujatu dugu hura zela hobendun eta segidan arrastatu dugu.

POLIZA Eta, Antonen aitak zer dio?

JENDARMA Dio, haren etxean ez dutela hilarekin deus kalapitarik pasatu.. Arras adichkide elgarretarik berechi direla eta aita semeak berehala chean sartu direla.. Bertzalde, ez dugu inguru horietan nehor ikusten, Antonez kampo, holako egitate baten kapable laitakenik..Hilaren auzo hurbilena, Ganich eta hunen familia, biziki zintzoak dire..Ganich bera izaitekotz bitzisko aire, dean sinu eta othoitz.. Horren alabarekin ezkontzekoa zen Anton. Anton aldiz, freskoan gizona bada, edan-eta arras zakartzen

.../...

- 11 -

denetarik da.. Jada, hunarat ekharria izan dugu kolpeka batzuen ondotik..Erretiretan, bethi nahaskerian behar zuen ari.

POL - Ba..Ez da dudarik.. Hori dugu gure ihizia. Orain da, nola nola aithortzerat bilduko dugun.

JEND- Jada egin-ahalak egin ditugu aithorerazi nahiz, ba ezitik eta ba bortitzetik.

POL - Jinen da ba noizbait pilota pumparat.. Mando bihurrienak hezten dira, aski akituz geroz.. Bon, lotuko gira beraz lanari..Eta gelditu gabe, 24 oren, eta 24 oren ez badira aski, bertze haimbertze edo gehiago, pasatuko ditugu kitzikan..Atherako ahal diozu zer-bait..Zu ariko zira ezitik..Borthitzaren egitea aldiz, bego ene gain

JEND- Ontsa da..

POL - Bon, sar araz-zaru Anton.
(Bere aphailatzen da bulegoan, alegia paperetan galdua..Anton sartzen da, eskuak estekan, kara akitua.. Poliza chutiturik, aphur bat hunarat eta hunarat dabil, hitzik jali gabe..Borthizki mintzo) : Hire etchean aurkhitu arropa eta bota busti hek, noiz bustiak zitukan?

ANTON Zombait egun lehenago.

POL- Zombait egun lehenago?..Zombat egun?

ANTON Hiru lau egun..

POL - Nun izan hiz arropa horiek hola bustitzeko?

ANTON Ardien biltzen, mendian.

POL - (boza saminduz) Krime aintzineko zortzi egun horietan, ez dik euririk egin.. Nola dituzkek busti arropak, euririk egin gabe?

ANTON Ihintza bazen eta iratzeak handi dira.

POL - -Noiztik ihintzak bustitzen ditika espaldak eta buruko boneta?

ANTON (ichilik dago)

POL - Emak errepusta.

ANTON Izerdia ere hor da.

POL - Noiztik izerdiak bustitzen ditika arropak kampotik eta barnetik chako usten.?

ANTON (ichilik dago)

POL - emak errepusta.

ANTON (bethi ichilik)

POL - (fermuki) So egi-zak. Ez dik balio egun argia bezen argi den gauza baten ukha eta ukha hartzea.. Hik hil duk Michel..Errak ba..Paper hau sina-zak eta fini.

ANTON Ez dut nik hil..Ez dut deus sinatuko.

POL - (orhoaz) Zer.. Hala zer uste duk? Hire kaskogogorakeriak salbatuko huela? So egizak..Azken aldikotz, sin-zak paper hau eta bakea emak..To, hemen sina-zak .

ANTON (Papera authikitzen dio)

.../...

POL - (bi zaflako ematen diozka eta ilhetarik tira eldi bat..izigarri kechu) Zer dituk zirtzilkeria horiek?..Jakin-zak espantuen dembora iragana dela eta, onez onean ez baduk aithortu nahi, bertze molderik ere artuko dugula.. Paper hau sinatuko duk edo bertzenaz hambat gachto hiretzat.

ANTON - Ez , ez dut sinatuko.

POL - (irri tzar kechu batekin) Ha, ez duk sinatuko.. Ikusiko diagu.. (deituz) Jaun Brigadiera..(hau agertzen da) Ez omen du jauntto hunek bere aithormena sinatugo..Zuk ezagutzen baituzu, nik baino hobeki, aphur bat uzten dut zure gomendio..Agian plegatuko zautzu cni baino hobeki..Agian.. Bere onetan.. Aithorarazteko salan ez dadien pasa.. Aditzen duka.. Hire onetan(hire mehar tzar batekin jalitzen da)

JAND -(estiki) Beldu nuk hiretzat.. Bahakik, hobe duk gure eskutan hizenc, hire aithorren egitea..Horien eskuetan, izigarriak behar baikuzkek pai ratu.. Berdin, galdua hiz.. Hire arropel erakusten dik, gauaz ~~kaxa~~ kampoan hintzela.

ANTON Ez dut nik nehor hil.

JEND Ukatuago eta galduago hiz..Aithortzen baduk berehala dena den, tribunala eztiago hukek hiretzat..Zer nahi duk?..Deneri gerta zukek aphur bat burua galtzea, eta behar ez diren jestuen, orduan ibiltzea.. Iagnoki aithortuz, beharbada hiru lau bat urtherekin kito hintazke.. Bainan ageri garbiaren kontra hola thematuz, hire bizi guziko biltzen ari hiz.

ANTON (ichilik aphur)bat)

JEND Hortaratu bahaiz, dudarik gabe, bahituen hire arrazoinak ere..Zer huen?..Zerbait makhur tratutan Michelekin?.. Diruari atchikia zuan gero Michel..Zer hu?..Zerbaitetan enganatu?

ANTON Michelek eta nik ez dugu sekulan deus makurrik izan.

JEND Uste baino kolpe dorpheagokoa emanik ikusi dukalarik lurrean hila, nik uste, ez hakien gehiago zer egiten huen ere..Eta beharbada, ez hait orhoit ere ondotik zer egin dukan.

ANTON Ez dut nik Michel hunki, ez bizirik , ez hilik.

JEND Pena diat, egiazki pena, hola debaldetan gogor egoiten baihaiz. Gertatua hain duk argi eta garbi..Aithor edo ez aithor, berdin kondenatua izanen haiz..Arinago jali hintazke, bertzela plantatzen bahitz..Orhoit adi pichka bat hire aitaz.. Oraino hire laguntzaren beharretan duk..Eta, abiatu hizan bidez, ez diok lauzkatze handirik ekhariko haren zahartasunari..

ANTON Ez dut nik hil Michel.

POLIZA (agertuz) Eta?..Zentzatu dea?..

JEND Bethi ukhatzen du.

POL - Aithorraren beharrik ez dugu jakiteko ean den hobendun, bainan jakiteko bakarrik zombatetaraino den hobendun. Ez bada entseatzen bere hobenaren arintzerat, berak pekatuko ditu, kondenatua izanen baita hobendun oso gisa (keinu egiten dio joan dezan Anton..J.Chefa berritz agertzen da)

JEND Frango kaksko gogorra izan behar du.

.../...

POL - Ba..ez luke Egkualduna behar bertzela izaiteko.. Bainan hastapena du oraino.. Lotuko girelarik, hamar hamabi orenez galde eta galdeka, lausengu eta zampaka lerratuko da ba hori ere egiaren aithortzerat bertze asko bezala..(athea jotzen dute)

JEND (idekiz) Hi hiza, Tartalet, zer nahi duk?

TARTALET :(arrunt harrotua) Jauna, ez da dudarik, orai segurtamen osoa dut.. Michelen hiltzalea...

JEND Bon, arras ontsa duk..Baginakian jada..Orai, hail etcherat..

TART : Ez.. Nahi dut mintzatu.. Nik baitazkit zuk ez dazkitzunak..

JEND Hobe, hobe..Gerochago entzunen hut..Orai badiat bertzerik egiteko.

TART Berdin du.. Bahakizu , atzo aratsean, ostatuan baitzen, gizon beltz buhami hura.. Harek hil du Michel. Nihaurrek ikusia diot holako kanibeta marraza bat.. Ba.. Sakelan dauka gorderik..Eleketan norbaitekin has-eta, eskua kanibetaren gainen pausatzen du.. Hor-takotz du maiz esku bat sakelan.. Beldu da-eta..Eta gizon hura, hemen zen, gure herrian, Michel hil duten gabea...

JEND Bon, arras ontsa duk.. Horiek guziak chehetasun baliosak dituk.

TART Zaude..Ez dut oraino dena errana..Gizon horrek seinale du beha-kotik norbait hil dual.. Behako bat badu ikharagarria.. Hasteko buhame guziak begi gachtokoak dira..Ni, ez nitzaiote hurbiltzen ere. Beldur bainaiz zorte tzar batez, zentzua galaraziko dautatela.. Horiek behar liezke hemendik kasatu..Denak kasatu.. Bertzenaz ez dugu oilorik ere hemen x haziko..Hasteko, oiloak berak izitzen dira buhameak hur-biltzean..Gure oiloak segurik, mirua ikusten balute bezala, ihes egiten dute.

JEND Aski, Tartalet, alo, aski..

TART Zeren, Jauna, oiloek, guk sudurretik bezala, gauzak mokotik senditzen dituzte..Eta buhamel badute usain berezi bat..

POL - (orhoaz) Aski..Ez die buhamel Michel hil, bainan hik.

TART (ikharatua) Hee?

POL Ba, hik hil duk. (ukhailoa eginez) Aithor zak.. Hik hil duk Michel.. Hik, ba hik..Aithor zak edo burua arrailtzen deat, aithor zak..

TART (ikharra daldaretan) Ha, ni ez hunki..ai, ai, ai.. Ba, ba nik hil dut Michel, barka, barka.. Ni ez hunki..

POL Bon, ontsa duk.. Barkatzen daiat, bainan hail etcherat berehala hemendik..

TART Ai, ai, ai.. Ba, ba gogotik eta fite ale..ai, ai, ai..(jalitzen da.. Bertze biak irriz)

POL Pena da egiazko hobendunek ez baitute hain laster aithortzen. Bon segi dezagun gure lana.. Bertze auzokoak ere behar ditugu solas-katu.. Sar-araz zazu othoi Antonen aita..

JEND (jali eta berritz agertuz) Huna Luich, Antonen aita.

POL Bahakizu dudarik gabe, zure semeak bere krima aithortu duela...

LUICH -(izigarri hunkitua) Zeer?..ene semak...Ez da posible...Ez da posible....
.../...

POL - Komprenitzen dut zure pena.. Bainan, hortaratu bada, nik uste baditu hobena arintzen dioten arrazoinak ere..Ez zirena biak pichka bat edanak, arats hartan?..Ez dioia Michelek zure semeari kalapita bilhatu?..Ez zutena lehen ere zebait makhurbide?..Zuri da zure semearen alde mintzatzea..

LUICH Izigarrikeria..ez..ez dugu behin ere phitsik pasatu Michelekin..Ez ni eta ez semeak..

POL - Krimako gabean, ez duzia senditu semea etchetik jalitzen?

LUICH Ez..afal ondoan, oherat joan gira, usaian bezala.. Biharramun goizean dugu berritz elgar ikusi..

POL - Ez duzia zuen zakurra saingaz entzun gauaz?

LUICH Ez..

POL - Alabainan, etcheke zakurrak, etchekoak ezagutzen.Ez duzia zerbait erraiteko zure semearen alde?

LUICH Ezin onhartua, ezin sinhetsia dutala horrek holakorik egin duala.

POL - Ortsa da.. Berritz deithu behar bazitugu ere, egonen zira ochtiko lekuan (J.Chefa joaiten du eta berritz agertzer da) Ez ahal da, krima hortan, aita hau semearekin partzuer?

JEND Ez dut uste.. Ez dugu deus arrapatu hori kondena dezakenik.

POL - Bon..Sararaz-zazu bigarren aita, auzoko hura (Ganich agertzen da J.Chefarekin Ganichi mintzo): Anton hori ez duzia behin ere entzun arranguraka Michelen kontra?

GANICH Behin ere.

POL - Zure gostuko, zer arrazoinez du Antonek hola garbitu gizon hori?

GAN - Ha, nik ez dakit.. Nik nehor ez dut akusatzen.

POL - Ez duzia gauaz deus arrabotsik senditu? Zakur sainga, oihu edo beste?...

GAN - Ez, phitsik.

POL - Ez duzia zerbait iduripen zertako antonek egin duen krima hori. Ez zena bederen diru beharretan ezkontzeko?

GAN - Ho, nik phitsik ez dakit.

POL - (borthizki) Zuk badakizu zerbait..Zuk badakizu nor den krima egilea.

GAN - (ikharatua) Hee.. Nik , nik?..Frogak nun ditutzu?.

POL - (irri maltzur batekin) Ez zitela ez alditchar, nik hori erran eta.. Ez baitu balio..Zu ere sahets hortan egonen zira, berritz gure galdearen beha (izerdia chukatzen dual, J.Chefak segitzen du..J. Chefak berritz agertzen da)

Ez du balio, sobera bururik hauts dezagun bazterretan hobendunketa.. Hobenduna Anton da..Sahetseko aldachkax beregisa utzirik, trunko hori ari beharko dugu jo eta jo..Sararaz-azu Antonen espos lagun beharra.. Norbaitek zerbait jakitekotz, horrek badakike..

(Margo agertzen da..Huni mintzo eztiki) : Antonek aithortu dauzu bere krima (Margok nigarrez, bisaia gordetzen du) Komprenitzen dut zure pena.. Izigarri baita zuretzat, maite zinuena hortaratzen ikustea. Aiphatu dautzia, azken egun hautan, zerbait arrangura artzainaren kontra?...

.../...

MARGO Ez, phitsik.

POL - Phits, phitsikN..Kasik ezin sinhetsia da..

MARGO Phitsik..ez du horrek hil Michel.

POL - Ez horrek hil? ..Ez ginuke zure erranaren sinhestea bertzerik galdatzen.. Nun ditutzu frogak?..

MARGO Nik, badakit.

POL - Balinbadakizu zerbait, mintzatzeko tenorea da..Ez bazira mintzaten Anton galdua baita.

MARGO Ahalge naiz.

POL - Ahalge?..Zertaz?..

MARGO Amak jakitea ez nuke nahi.

POL - (lanoki) Mintza zaitte deskantsuan.. Hemen erranak, hemen egonen dira.

MARGO (bethi duda mudetan)

POL - Juramentu egiten dautzut.. Nehork , entzuten duzu, nehork ez ditu jakinen zuk hemen erranak..Edo ez naiz gizona..Errazu lanoki dakizuna..Eta hitzemaiten dautzut egin ahal guziak eginen ditugula zu sun-tengatzeko.

MARGO Ez zezaken Antonek hil Michel..Anton enekin baitzen gau hartan.

POL - Bon.. Biba zu..Gaitzeko lekukotasun baliosa ekhartzen daukuzu Anè tonen alde.. Zombat orenetan ethorri da zura ganat?..

MARGO Gauerdi gabe.. Michel etchetik despeitu-eta berehala..

POL - Zombat orenak artio egon zirezte elgarrekin?

MARGO Oren bat.(dolutua erranaz) Hor ez nuke nahi nehork jakin dezan.

POL - Ez zaitela kecha. Sekretua ez da hemendik jaliko..Segur zirea gauerdi aintzin zurekin zela Anton?

MARGO Ba, segur..

POL - Eta, segur zirea oren bat zurekin egon dela?

MARGO Ba, arras segur..Elizan ezkila ari baitzen hura urruntzean.

POL - Bon, ontsa da..Ez aipha nehori hemen erran ditutzunak.. Horiek guretzat atchik ditzagun, zuk eta guk..Ichtagno bat egonen zira othoi sahetseko salan (J.Chefak joaiten du eta berritz agertzei da) Beraz, bere krima egin du gauerdi aintzin, horren ganat joan baino lehen..Horra noiz jaliz zituen arropak bustiak.. Bon, ari gira bethi hobeki argitzen..Orai, sar-araz-zazu horren ama (J.Mari sartzen da) (hari mirtzo): Krimako gauean, ez duzia entzun deus arrabotsik edo zakur saingarik, zuen etche inguruan?

JANA MARI Ez.. phitsik, usaiak kañpokorik.

POL - Zure alaba eskontzekoa zena Antonekin?

J.M.- Ba, maluruski.

POL - Zertako diozu: Maluruski?

.../...

J.M.- Ageri baitzen zer zen Anton hori..Gizon abrea..Ene alaba, jauna, horri emaita, bildots bat otsoari emaita zen..Ene alaba, gure etchean, komendu batean bezala altchatua izan baita.. Jaun erreto-
rak badaiki..Ez nuen uzten Jaun Erretoraren bilkuretarat ere, lagu-
nok ez zezaten gal.Enekin elizarat, eta enekin etcherat ibiltzen nuen.

Pol - Bizkitartean Antonekin noizbait egin ditu ezagutzak?

J.M.- Ba.. Ontsa ene gogoaren kontra..Auzo gisa, horrekin, guruzatzerat bortchatuak baigine..Zikin horrek ene alaba enganatu du..Zer daki alabainan ene alabak biziaz?..Gaichoa.. Horrek daki hori, zer den gizon batekin bizitzea..

POL - Segur zirea zure alabak hain arrotz dituela gizonak?

J.M.- Jauna, ama batek ezagutzen ahal du bere alaba..Aski hurbildik segitzen ahal dut, horren urkatzen jakintsun izaiteko.

POL - Anton jiten zena zuen etcherat?

J.M.- Gure etcheko athea luzaz debekatu izan diot.Azken egun hautan, sen-
harra eta alaba kontra bainintuen, horien ezkontza onhartu behar
izan dut, eta aizu ziren elgar ikustea, bainan gure bichtan bakarrik.

POL - Segur zirea ez zutela, zuen bichtaz kampo, elgar ikusten?

J.M.- Noiz, nahi duzu elgar ikus zezaten bertzela? Ene alaba bothi enekin zen?

POL - Gauaz ere?

J.M.- (ofentsatua) Jauna, ez ahal duzu ene alaba piltzar batentzat hart-
zen.. Jakin-azu gure familia bethitik ohoragarria izan dela.

POL - Bon.. Hobe, hobe..Aphur bat egonen zira zu ere sahetz hortan (J.
Chefak joaiten da eta berritz agertzen da)
Zer zautzu?..Emazte hori, edo arras gutaz trufatzen da, edo choro
eder vat da?? Nago ez othe den familia hori guzia, krima hortaz
argitua.. Nun ez diren partzuer. Bon, dei zazu berritz ere Anton..
Behar ditugu denak buruz buru ezari. Ean zer dioten, elgarri,
entzun behar dugu.
(Anton agertzen da.. hari mintzo) Hire gogoetak ogin dituka edo
bethi hitz beretan hiza? Krimako gaucan, etchetik jali hiza edo
etchean egon?

ANTON Ez naiz etchetik mugitu.

POL - Kasu emak zer derasakan.. Berritz ere, eta azken aldikotz, emaiten
deat egiaren aithortzeko padara..Krimako gaua etchean pasatu duka,
edo etchetik kampo?

ANTON Ez naiz etchetik mugitu.

POL - Bon , ontsa duk..sar-araz-zazu Margo.

MARGO (sartuz, asaldatua) Hoo, Antton.

POL - (borthizki) Ichilik..Zuen arteko sentimenduak atchik-aitzue zuentzat
(eztikiago) Mintzatuko zirezte bakarrik, galdeari errepusta emai-
teko..Zuk, Margo, zure hitzak ontsa pisatuz emanen duzu errepusta:
Michel hil duten gauean, zombat orenetan jin da Anton zure Ganat?

MARGO Gauerdi aintzinttoan.

.../...

POL- Zombat orenak artio?

MARGO Oren bat artio.

POL- (Antoni) Margok egia erraiten dia edo ez?


ANTON (aphur bat ichilik egonez, mintzo da hotzki Margori) : Ez ginen hola hitzartuak.

MARGO (nigarrez hipaka) Ho, Antton.. Nik uste nuen denak aithortuak zini-tuela..Hortakotz aithortu ditut denak, nik ere.. Denak, denak, aithortu ditut (memoria galtzen bezala du, kadiran jarritz)

POL - (J.Chefari) Sar-araz-zazu ama..(hau sartzen da) :Othoi zure alabaz artha ar zazu.

J.M.- (samur) Zer dire molde haik? Ez zireztea ahalge haur gaicho hau hein huntan ezartzea?..Jakín ez duela gizonen aintzinean agertzeko usaiarik-eta, aski kopeta izan duzue hunarat bakarrik sar-arazteko? Eta oraino; kriminel tzar horren aintzinat...

POL - (Antoni) Bon, ez dik balio engoitik, ukha eta ukha, demborarik gal dezaka n.Aithor-tzak: Michel hiltzeko gauean, Margoren arrapatzerat izan hiza, gauerdi aintzinttoan?

ANTON (aphur baten buruan, boza ilhun): Ba... 

POL - Hunen ganik, goizeko oren batean urrundu hiza?..

ANTON (lehen aldian bezala) : Ba..

POL - Aintzinean ere, gisa berean egiteko usai bahina?.

ANTON (bethi berdín) Ba..

MARGO (berebaitatua, nigarrez, errabian) Poliza ustela.. ustela.. Nehori phitsik ez zuela salatuko hitzemana zautan..Eta nik oro aithortu horri..Ustela..

POL - (borthizki Margori) Zu ichilik, bi zaflako ez baitutzu gainerat nahi..Eta orai baitugu aski jakinik, sla hau huts..(J.Chefak hartzen du Antton..Margo bethi nigarrez eta "Ustela" ari da)

J.M.- Desohoria zu..Familiako desohoria..Zato hunarat, othoi.Izan zaizte ama on bat zuen haurrentzat.. Horra ondotik ukanen duzen satifamendua..Erichtia, zu..

(jakitzen dira)

POL - (J.Chefari, irri maltzur batekin) : Gure lana pichka bat argitu dugu neska choro horri esker.. Choria orai erdi eskutan dugu.. Luza gabe, nik uste, ahurrerat oso osoa bilduko dugu..

(Oyhala)

JOKA LEKUA : Ostatu barne bat.

(Ostalertsu zerbitzatzen ari.. Hiru kantari, katchin laugarren erakasle,
ari dira Michel zenaren kantuen emaiten - laugarren pertsuan, Luich
sartzen da.. Elgarri keinu bat eginik, kantariak ichiltzen dira)

LUICH -(errabian) Segitzen ahal duzue ba zuen kantua..Zertako ichildu
zirezte?..Ala, zer nuzue?..Ni sobera hemen?..

KARCHIN-(eztiki) Ez, Luich, ez zaitugu bat'ere sobera.. Bainan ez dautzu-
gu penarik egin nahi?

LUICH -(bethi samur) Penarik ez egin nahi?..Zuen moldek zer uste duzue egi-
ten dautatela?..Atsegin behar bada?..Kriminelaren aita naizela
pentsatzen baduzue, errazue garbiki.

KAT - Ez dut ene kantetan holakorik aiphu.

LUICH ≠ Ez duzue beharbada holakorik aihortzen, bainan ez ikhatzen ere..
Dcus hobenik gabe, hemen naukazue denek, sobrekin bat bazala. Ni
hurbildu ordu, kompainia mutu, kompainian urrun..Atzoko hura bera
nuk ni egun ere.. Hiliki usteldu bat baniunte bezala, leku egiten
duzue ni ganik.. Ni ganik ihes, deus gaizkirik egin ez dudalarik,
deusetan kondenatua izan gabe ere..Ene etchea fama tzar batez
ilhundua, zikindua, ehoa delakotz - fama hartarik nazue jujatzen..
Ez gertaturik bainan erran-merran huts batzuen gainetik..Ez zirezte
gizonak..(edan eta brau jalitzen da)

KAT - hum..Mimbera, gizona..Eta mimbera denak etch egiten.. Ha, zertan
ginuen ba gure kantua?.. Ha ba.. Huna segida.
(kantua segitzen dute.. Bederatzigarren pertsuan, sartzen da Ganich..
kantariak elgarri keinu egiten dute hau dela, bainan gelditu gabe..
Mamargarrena eman-eta, agertzen da Tartalet..)

DENEK To, Tartalet.. Haugi hunarat.. Jar-adi hemen. Zerbitzaria, baso
bat gehiago..Ale kanta zak gurekin.. -(Tartaletekin emaiten dute
hamargarren pertsua, Ganicheri buruz)bezala)

TART - Pertsu hori ontsa emana duk gero.. Jaun Misionestak, gauza bera
erran dik prediku alkitik.

KAT - To, hik biziki ontsa ikasia omen duk Jaun Misionestak krimaz eman
predikua..Ale, behar daukuk prediku hori egin.

TART - Emanen diat, bainan zuek ichilik egotekotan, elizan bezala.

DENEK Ba, muthikoa ba.. To, haugi hunarat.. Upha-adi mahainaren gaine-
rat...Ale, cho.. Lot adi..

TART - (Hazparneko misionestak ezagutu zombait imitatuz, emaiten du predi-
kua)

Krima.. Krima izigari baten chehetasun hitsak hedatu dira Eskual-
Herriaren hegal urrunetaraino, gure arrazaren omen ona histen
dutela, jende chehen bihotzak lazten, gure arteko gochotasuna
ilhuntzen eta nahasten.. Krimaren tokia: Sempere... Krimaren ondo-
fioa: Artzain gaicho bat, gorphutz.. Krimaren egilea: Nehork

ez jakin nor den.. Makhur mintzo naiz.. Ba, bada, norbeit oro baitazki.. Bada norbait, norentzat barneak kampo eta ilhuna, egun argi, baitira. Norbait hura: Gure Jainkoa.. Norbait haren gaztigua, ez da mentura, bainan segura. Eta, gure artean balimbada delako kriminela, ez dezake ukha nik errana..Adi-zak, kriminel trichtea.. Bulharari jo eta jo ari zaukan danga hori, Jainkoaren boza duk.. Nahi hukek pausatu, lo egin, ahantzi..ez..danga, danga..... Jainkoaren bozak ez dik pausarik emaiten.. Nahi hukek alegeratu, gochatu, bakea jastatu.. danga, danga.. Jainkoaren bozak ez dik deskantsurik uzten.. danga, danga.. Soinu bera entzunen duk ase artio, nahasi artio, erhotu artio..danga, danga.....

LUICH (orhoaz) bakia, bakia eta bakia... Lephoraino badiat zuen danga eta danga zikinarekin.

KAT- Yes.. Bainan, gizona, zer duzu?...Ez gira zutaz ari.. Akusatzen ari gira.

GAN -Ahusamendu latza.. akitgarria..errespeturik gabea..

TART (sekulako elhasturian) Ez gira zutaz ari, gu...danga, danga... Kriminelari nola joiten dion kontzientziak, erraiten dut nik.. Ba, danga, danga.. Merezi ahal du, alabainan, hola gizona hil eta errez gerroz.

GAN -(brau jalitzen da, esker tzar batean)

TART-(Ondotik jarraikitzen zaiola) Holakocri ez laitake aski lephoa moztea, Behar liezke, lephoa moztu aintzin, ontsa sofriarazi. Eta hola ez laitake gehiago buhamerik.. danga, danga, phitz ez duk alabainan buhamentzat.

(OYHALA)

--:--:--:--

MICHEL LARRALDEN KANTUA

Q:--:--:--:--

- I -

Kantu berri kantatzen, orai naiz habian.
Hasi nahia nintzen gan den aspaldian
Orai arte begira egon naiz lorian,
Gastaginak hartuko tuztela agian.

- 2 -

Othoi egin zazue zertaz diren kasu,
Gauzak diren bezala , nai ditut aiphatu.
Artzain bat bere bordan baitute garbitu
Etsaiaren indarra, han da baliatu.

- 3 -

Michel zuen izena, deithura Larralde,
Bakarrik bizi zena, lagunikan gabe.
Gauaz eta egunaz, bethi larrez larre,
Jan edan onik gabe, zabilan debalde.

.../...

- 4 -

Gau hartan auzoan zen, gaztain erre jaten
Trichteak holakorik ez zuen pentsatzen.
Ber'ustez deskantsuan, arthalderat gan zen.
Kriminelak etcheen harmaturik zauden.

- 5 -

Arthaldea bildurik bera ethorria,
Egintche zuelarik bere afaria,
Sukaldean lo zagon kadiran jarria
Bainan hurbil bazagon norbait atzarria.

- 6 -

Zango puntetan zaizko ethorri biphilik,
Aizkorra eskuetan ichil gibeletik.
Hiru kolpez segidan buru"arraildurik,
Han bertan utzi dute bizia kendurik.

- 7 -

Hiltzea ez zen aski nahi zuten erre
Lastoz eta petrolez entseatu dire.
Ez zuten utzi nahi trazarikan ere
Afera ongi zuten baliatu balire.

- 8 -

Justizia izan da jina Baionatik,
Jendarmeria eta jaun mera herritik.
Gibelerat itzuli, bihotza trichterik,
ez baitute atzeman nehor hiltzailerik.

- 9 -

Semperen gertatzeko oi krima trichtea.
Sortuz geroz zor dugu guziek hiltzea,
Bainan ez zauku aizu odol ichurtzea
Horrek ekhartzen baitu denentzat kaltea.

- IJ -

Nor nahi izan dadien horren egilea,
Galdu du sekulakotz barneko bakea.
Ez dauka pagaturik egin duen kaltea,
Irriskatzen ere du lephoa moztea.

- II -

Nehor gertatzen bada ene beharretan,
Zerbitzatuko ditut denak lorietan.
Onestasuna zainduz bertsu berrietan,
Denek kanta ditzazten Eskual-Herrietan.

-:-:-:-:-

.../...

JOKA LEKUA : Edozoin sala

(Margo eta hunen ama, tortcha batekin, mantalinak ezkuetan, sakramenduen beha daude)

JANA MARI-Zuk, Margo apheza segituko duzu aitaren gamberalat.. Nik askaria preparatuko diot.

MARGO - Heldu dira. (mantalinetan, tortcha piztua, belhaunikatzen dira.. Apheza sartzen da beretterarekin aitaren gamberan)

J.M. - (bakarrik, mahaina ematen du eta askaria zerbitzatzen) Agertzen dira Erretora eta berettera)

ERRE - Agur, Jana Mari, Nola pasatu du gaua Ganichek?

J.M. - Beheiti ari da..Gau guzia amets nahasitan iragana du.. Poliza eta Antton, - Anton eta Poliza - ez zuen bertze aiphamenik - hek baitezpada ikusi nahi zituen.

ERRE - Heien galdea egina daut eni ere, atzo, kofesatzean?. Polizari parte emana diot erakusten duen desiraz.

J.M. - Ez ahal da poliza hunarako?

ERRE - Hala balitz, onhartu beharko.

J.M. - (Beretterari) Zuk, Manech, sukaldean askalduko duzu.. ~~H~~ur dut ezarria zure askarria prest..(Manech jalitzen da) Jar zaite Jaun Erretora..Uste duzia funtsez ari den poliza eta Anton Galdezka?

ERRE - Nor~~a~~ daki?

J.M. - Izigarri da ba zer jo gituen.. Urtu da, urtu, ene senharra, zombait egun hautan.. Iduri luke norbaitek horrentzat eihar meza bat eman duela.

ERRE - Hobe luke eihar meza bat balu jasaiteko, duen eritasuna baino.

J.M. - Mihikuak deus ez du komprenitu horren gaitzari. Izpiritua duela eri, dior gorphutza baino gehiago.

ERRE - Gertatzen dena da.. Ispirituko arrangurek gorphutza eritzen ahal dute, gorphutzekoek izpiritua bezembat (athea joiten dute)

J.M. - Aintzina.

POLIZA Agur, Jaun Erretorra, Agur, anderea.

J.M. - (harritua) - Zu?...Zu hemen?..

POL - Ez nia Jaun erretorak deithu?

ERRE - Ba, hala da..Eriak hambeste galdatzen baitu zu ikustea, nahi izan diot satisfamendu hori eman..Hortakotz igorri dautzut jin zaiten galdea.

POL - Zer nahi du ni ganik?

ERRE - Hori bere sekretua du.. Bera mintzatuko duzu..Arras gaizki da, bainan adimenduz chorrotch eta zuzen.//....

- POL - Nun da eria?
- J.M.- Zato enekin, Jauna. (J.Marie eta Margo agertzen dira) Poliza nahi du eriak buruz buru mintzatu.. Bi emazteak kamprat despeitu gaitu.. Othoi, Margo, zoazi sukalderat..Ez duzia uste, Jaun Erretora, gure alabarren egitatea dela horren eritasunaren arrazoin larriena? Horrek, horrek.. Desohoratu eta hil behar ginituen azkenean..Ez ginuen holakorik merezi, horren ganik bereziki.
- ERRE- Iragan dembora ez da gehiago ~~erik~~ gure..Heldu dena, ba..Eroritik altchatu da.. Jaunari milesker erran dezogun altchatu delakotz eta ichil utz dezagun erori delakoa.
- J.M.- Hortaraino erortzea.
- ERRE- Bada bekatu handiagorik bazterretan...Beira gaiten, guhaur hortarat ez gintazkelako urgulutik.
- J.M.- Gaicho gizona..Arrunt bertzelakatu da azken gertakari hauien ondotik..Horiek deramate tombarat.
- ERRE- Jainkoak daki bakarrik chuchen horren baitako gora-beheren berri.
- POL - (agertzen da)
- J.M.- Eta?.. Ezagutu zitia?..Zer nahi zuen?..
- POL - Memozio osoan da.. Nahi nuke aphur bat bakarrik egon Jaun Erretorarekin.. Hemen berean egoiten ahal gira?.
- J.M.- Ba, ba, deskantsuan..Sala hau zuen gomendio da (jalitzen da)
- POL - (Erretorari) Errak, bahakik, dudarik gabe zer nahi zian ene ganik, Beraz hori zuian hiltzalean..Eta gure zalapartak guziak, hobenik ez zuen baten kontra ibili ditiagu..(bizi bizia) Hik bahakien , eta aspalditik bahakien, hori zela hobenduna..Zertako ez duk phitsik salatu?
- ERRE- Nazkienak ez nitian salatzeko.
- POL - Ba, hik, kontseilaturik, dik jmen, bere burua ez ekharri hobendun, orai artio.
- ERRE- Nik ez diat phits erraitekorik.
- POL- Sekretua, ez dena salaturik ere, hitz bat bederen erraiten ahal zautaien ba: Bertze biderik har nezadan, edo.. holako.
- ERRE- (bizi bizia) Gure sekretua sekretu duk burutik buru..Eta, ez zukek sekretu horri kantailarik ere ken, deus arrazoinez.
- POL - Sekretua hein bat on duk.. Bainan holako makhurrak elhartzen dituelarik, ez dut sekretua agertzea bekatu, bainan haren gordetzea.
- ERRE- Gure sekretuaren gordeak, agerrak baino hobeki zerbitzatzen dik ongia..Tapan ditzan on edo gachtoak, hobe duk gure sekretua, sekretu egon dadien.
- POL - (eztituz) Bon.. Ontsa duk..Anartean, hobendun ez zenak pairatu izan dik..
- ERRE- Zuentzat hori erakaspn izan dadiela..Zuen lana egin-azue zintzoki eta humilki, eta, ez gaztigurik eman akusatuari, bainan hobendunari bakarrik.

POL - Ahal duguna egiten diuk guk ere.

ERRE- Orai baitakik nor den hobenduna, zer chede dituk horri buruz?

POL - Hiltzen ari den bati, nola nahi duk jazar gaiten?

ERRE- Aski punitua duk hol'hola. Ez zian horrek polizaren beharrik....
Kontzientzia aski zian gaztigulari.

POL - Orai, Anton nahi dik ikusi..Anton eta Anton, hari barkamendu gal-
datzeko.

ERRE- Hor duka Anton?

POL - Ba.. Hik erran bezala, enekin ekharri diat.. Hor duk kampo alde
hortan, jandarma chefaren gomendio.

ERRE- Hobe duk berehala eriarekin buruz buru ezartzea.. Horren hatsa
labur baituk.

POL - Bon, baniok hilarat.

ERRE- (aphur bat bakarrik)

J.M.- (agertuz) Joan dea Poliza?

ERRE- Ba, bainan berritz itzultzeko bertze norbaitekin.

J.M.- Berritz itzultzeko?... Norekin?

ERE - (bat'ere ez errepustarik)

J.M.- Bainan zer du gero ene senharrak? Horrek ba bide du zerbait
makhur handi, hil aintzin zuzendu nahi likenik.

ERRE- (bat'ere ez errepustarik)

J.M.- Zuk ez dakizia deus ere, Jaun Erretara?

ERRE- Nork daki zer pasatzen den horren baitan.

J.M.- Enekin ez du ahorik ere idekitzen..Zuri emaiten dautzia sola?

ERRE- Ba, frango polliki.. Bon, berritz ere eriaeren ondorat noha
ichtagno bat.

J.M. Bakarrik aphur bat.. Bere lanetan ari, arrunt zainetatua, athea
jotzen dute) Aintzina...

LUICH (Herabeki) Agur Jana-Mari.

J.M.- (hotz hotza) Agur Luich.

Luich Nola zirezte?

J.M.- Oren latzak hurbil.

LUICH-Auzo gisa heldu nintzan. .Ene beharra baduzuela beharbada kabalen
lanetako.

J.M.- Baditugu adichkideak laguntzeko.

LUICH Badira mementoak, Jana-Mari, eginbideari behatu behar baita,
aiherkundeak beregisa utziz.

J.M.- Badira ere mementoak, hobe baitira zauri batzu ez kitzikatu.

LUICH Ez naiz zauri kitzikatzerat jina, bainan tratatzerat.

.../...

- J.M. - Perachatzeko lanik ez zinuen izanen, ez bazinu urhatu.
LUICH- Ez dut nik deus urhatu.
- J.M. - Bai ordian zure semeak, eta errana den bzala, laharraren aita: Martchuka.
- LUICH- Ene semea ez da, oraino segurik, hobendun jujatua.
- J.M. - Bat hil zuen.. Bertzeari heriotzea igorri dio. Ez zautzia aski haren kondenatzeko?
- LUICH- Mihi eztenak, nor ez du kondenatzen?
- J.M. - Ene familia hola funditu duen semearen aitak, utziko ahal gait bakean, bederen bizirik girenak.
- LUICH- Ez naiz kriminel baten aita, oraino segurik.
- J.M. - Komprenituko ahal duzu zuen eta gure ontasunen arteko gelak bethikotz hetsiak dirala.
- LUICH- Zure gatik dira hetsiak izanen, hola behar badute.
- ERRE - (agertuz, eztiki) Othoi, emekichago emazue barne huntan...Izan dezagun oren handien errespetua. (Luich jalitzen da, hitzik erran gabe)
- J.M. - (Jaun Erretorari) Zer kopeta..Ez zaió aski gu estatu huntan ezartzea.. Bere bisaia oraino hemen nahi du erakutsi.
- ERRE - Zer nahi zuen?
- J.M. - Gure penetan, zer begitarte dugun ikusi - horra zer nahi zuen Berak muntatu krime saltsatik jastatu.
- ERRE - Othoi, Jana-Mari, ez zazula hoin aise kriminela dei, oraino kondenatua ere ez den gizona.
- J.M. - Ez ahal duzu, jaun erretora, urrikariko bere auzoa hil eta erre duen gizona. Guhaur errekatu gaituen gizona..Ez zaut iduritzen hola-ko batentzat behar laitake pietaterik.
- ERRE - (fermuki) Othoi, Jana-Mari, zaude ichilik. Ez dakizu zer derasazun..Eta orhoit zaite zure senharraz.
- J.M. - (erdi nigarrez) Ba, ba, gaicho gizona. Uli bati beraz ez baitzion minik eginen.. Ez du jasan ahal izan krime horrek bihotzean eman dion ukhaldia..(athea jo eta idekitzen dute.. Hor dira: Poliza, Jendarma chefa eta Anton)
- J.M. - (arras asaldatua) Zer...kriminela?...Orai berritz kriminela ene etchean. (ukhailoa eginez Antoni) Hi, hi..Gizon hiltzale zikina.. Hire gatik gaituk denak errekan.
- POL - (J.Mariri fermuki) Zu ichilik..Goazen gamberalat (jalitzen dira)
- J.M. - (erretorari) Bainan, Jaun Erretora, erranen dautzia, zer duen ene senharraz holako afera poliza horrekin?
- ERRE - Hori berek dakite.
- J.M. - Hala, ene senharraz gorde dauta zerbait? Gau hartan bazina zerbait ikusi edo entzunik?
- ERRE - Ditakena da.
- J.M. - Zer zuen?..Anton ikusia bederen, eta ez salatua?
- ERRE - Beharbada.

J.M. - Ez naiz estonatzen, hori den zuzenarekin, nahi izan baitu kontzientzia arindu hil aintzin ..(aphur bat ichilik..Erretora harat eta hunarat dabil..Hiru gizonak agertzen dira)

ERRE - Egin duzia zuen lana?

POL - Ba.. Paperean izkirioz emaita aski.

ERRE - Bon, erriaren ondorat noha. -(Anton jartzten da nigarrez - Jandarma Chefa chutik dago ichilik..Poliza izkiriutzen mahain hegian)

J.M. - (Antoni) Nigar egiten duka, nigar..Ez duk orai tenora..Lehenago zuian gogoetan egiteko tenora..Aski nigar guhaurri egin-arazi daukuk..Zuzen duk naizbait ihaurrek egin dezakan.

POL - (bizi bizia)Othoiz zaude ichilik..Utz nezazu izkiriutzerat (aphur bat ichilik)

ERRE - (agertuz) Jana Mari, eriak margorekin bere ondorat deitzen zitu.. Behar omen dautzuate zerbait serio buruz buru eran.

J.M. - Zer nahi du?

ERRE - Ez dakit?

J.M. - Ontsa da (sukaldeko athea idekiz, Margo deitzen du) Zato Margo.. Aitak nahi omen gaitu mintzatu. (biak jalitzen dira)

ERRE - Bere egitatea salatuko diote..Ez du arrangura horekin hil nahi... Barkamendu galdetuko diote bieri eta, ahalz, haren krime errepara dezaten..(denak ichilik jagotzi...aphur baten buruan, marrumaz agertzen dire ama-alabak, eta phitsik erran gabe, jalitzen sukaldeko atletik)

POL - Bon, parper-hau erriari sinarazi-eta, gure lana bururatua izanen da.. (J.Chefari) Zato enekin.

ERRE - Ez dakotzia, orai, Antoni, esku-horiek libratzen ahal?

POL - Ba, egin ditakena da..(hala eginik Poliza eta J.Chefa jalitzen dira)

ERRE - (eztiki) Errazu, gaicho Antton, konten ahal zira.

ANTON- Alabainan, Jaun Erretora.

ERRE - Bethi sentimendu berretan zirea Margorentzat?

ANTON -Ni bethi.. Hura hala bada enetzat.

ERRE - Ba, badakit hura ere hala dela zuretzat..Ez zaitu harek behin ere ukhatu..(sukaldeko athea idekiz) Zato, Margo hunadino, plazer baduzu..(Margo hurbiltzen zaiu Antoni nigarrez) :

Ha, zuek biak, ene haur maiteak.
Oren hitsak pasa-berri ditutzue..
Halere zuen amodioa ez da hautsi..
Izaitekotz azkartu ..Tinka-Aitzue
Esku horiek elgarri..Atchi-azue.
zuen amodioa garbi..Agian, laster,
aldare aintzinean, sekulan hautsiko
ez den lokharriaz estekatuko ditugu
bi esku horiek.....

(eskuak tinkatzen dituzte erdi nigarrez)

(Oyhala)

P. IARZABAL